

ARABAKO SEAD-en LAGUNEN ELKARTEA

JARDUEREN MEMORIA

2022. URTEA

AURKIBIDEA

Aurkibidea

0. SARRERA.....	3
-----------------	---

PROIEKTUAK

1. SAHARAKO EMAKUMEEN BATASUN NAZIONALA (UNMS) SENDOTZEA.....	5
2. SEADEN GAZTERIA PLANA – AISIALDIKO ETA DENBORA LIBREKO ILDO ESTRATEGIKOA.....	7
3. SAHARAKO ERREFUXIATUEN KANPAMENTUETAKO GARRAIO-AZPIEGITURARI LAGUNTZEA.....	9
4. GAZUANI, AUSERD ETA MEJIDI LANTEGIEI LAGUNTZEA ETA GARRAIO ETA ENERGIA MINISTERIOARI EKIPO ELEKTROGENOAK ETA SISTEMA FOTOVOLTAIKOAK KONPONTZEKO ETA MANTENTZEKO UNITATE MUGIKOR BAT EMATEA.....	10
5. GAZUANI, AUSERD ETA MEJIDI LANTEGIAK BABESTEIA, ETA GARRAIO ETA ENERGIA MINISTERIOARI ERREGAI KAMIOI BAT EMATEA.....	11
6. MHEIRIZEN URA BANATZEKO SISTEMA INDARTZEA.....	12
7. ELIKADURA-SEGURTASUNA.....	13
8. SAHARAR ERREFUXIATUEN KANPAMENTUETAKO INGURUMEN OSASUNEKO ZERBITZUAK.....	15
9. BOJADORREN ETXEKO HONDAKINAK GAIKA BATU ETA BILTZEKO SISTEMA EZARTZEA.....	16
10. SAHARARREK EUSKADIN DUTEN ORDEZKARITZA-BULEGOA MANTENTZEA.....	17
11. SEADEN ZERBITZU PUBLIKOEN PIZGARRI-SISTEMARI LAGUNTZEA.....	18
12. ESPOLIAZIOAREN AURKAKO JARDUNALDIAK -Gizartea eraldatzeko hezkuntza- estrategiak Sahararen alde-.....	19
13. GIZA ESKUBIDEAK BABESTEKO LAGUNTZA.....	20
14. BESTELAKO JARDUERAK.....	22

0. SARRERA

2022tik 2023ra bitartean, Mendebaldeko Saharako gatazkaren bilakaera eragile nagusiek dituzten estrategia ezagunen ildotik joan da.

Fronte **POLISARIO**ri dagokionez, XVI. Kongresuak eta aurreko prestaketek 2022aren amaiera eta 2023aren hasiera markatu zuten. Nahiz eta ahots disidenteak izan, Idazkaritza Nagusirako bi hautagai-zerrenda aurkeztu izan eta Idazkaritza Nazionalean zenbait aldaketa egin, ezin da esan kongresu honek gizartearen eta mugimenduaren sektore askok, batez ere gazteriak, aspaldidanik eskatzen duten berrikuntza ekarri duenik. Adostasuna Kongresuaren leloan adierazten da: *Borroka armatua areagotzea inbaditzailea kanporatzeko eta subiranotasuna burutzeko*. 2023ko bigarren erdian ikus dezakegu nola betetzen den kontsigna.

Estatu okupatzaileak, **Marokok**, bere harreman politiko eta ekonomikoak Mendebaldeko Sahararen gaineko ustezko subiranotasunaren aitortpen diplomatikoaren eta izatezkoaren mende jartzeko estrategia indartzen jarraitzen du. Israelen errekonozimendua AEBetakoari eta Espainia, Frantzia, Alemania edo Belgika bezalako herrialdeen adierazpenei gehitu behar zaie orain. Inguru ekonomiko eta judizialek arrantzaren eta fosfatoen espoliazioaz gero eta zalantza handiagoak adierazten dituztenez, energia berdeak –eguzki energia eta energia eolikoa, batez ere– bihurtu dira inbertsioak erakartzeko eta irudi politikoa garbitzeko aitzakia nagusi. Estatu eta inbertsio-banku globalekin egindako hainbat plan eta akordio ekonomiko sinatu eta aurkeztu dira nazioarteko foroetan, garapen jasangarriaren eredu gisa, kontuan hartu gabe gehienak legez kanpoko okupazioan eta saharar eskubide oinarritzkoen ukazioan oinarritzen direla.

Hala ere, gerra antzeztokia ez da, hain zuzen ere, egokiena finantza hitzarmenak eta inbertsioak erakartzeko. Horregatik, Maroko gerraren errealitatea ezkututzen saiatzen da, nahiz eta, noizean behin, ezin duen bere izaera kriminala ezkutatu, lurralde liberatuetan ibiltzera ausartzen diren zibilak hiltzeko dronak erabiliz eta sahararren aurkako errepresioa areagotuz, Mendebaldeko Saharako hirietako populazioaren kontra edo sarraski-espetzeetan atxikitzen dituen militante independentisten aurka.

Arlo militarrean eta segurtasunean Israelekin egindako aliantza, nolahi ere, probidentziala da Mohamed VI.aren erregimenarentzat, baina, aldi berean, bi erregimen kolonialen paralelismoak mahai gainean jartzea lortu du. Eta, neurri batean, Palestinar herriarekiko mundu osoko elkartasun-mugimenduaren begiradak Mendebaldeko Saharara ere bideratu ditu.

Potentzia administratzaileak, **Espainiak**, onartu gabe jarraitzen du Mendebaldeko Saharako lurraldea, ondasunak eta pertsonak babesteko duen erantzukizuna, eta, hauteskundeetako emaitzak ikusita, ez dirudi gobernu berria Pedro Sanchezek 2021ean hasitako bidetik aldenduko denik: Hau da, Marokoar erresumaren proiektu kolonialari, okupatzaileari eta espoliatzaileari babesa emango dio, Marokok Europako migrazio-nekropolitikari eta mugen segurtasun ezari babesa ematearen truke. Ezkerreko koalizioako alderdiak eta elkartasun-erakundeak ez gara gai izan "pertsonalaz" eta "alde bakarrekoez" mozorrotu nahi den, baina benetan estrategikoa den erabaki hura eraldatzeko. Hortaz, espero behar dugu, Marokori armak saltzen, laguntza ekonomikoa eta diplomatikoa ematen jarraitzea, nahiz eta legez kanpokoak izan edo eskandaluak eta epai judizialak tartean agertu.

Hain zuzen ere, **Europar Batasuneko** instantzia judizial gorenak EBJAk (Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak) balio gabetu egin zituen Europak Marokorekin zituen merkataritza- eta arrantza-akordioak Sahara barne hartzen zutenak. 2021an emandako epai horren aurka Kontseiluak eta Europar Batasuneko Batzordeak jarritako helegiteei buruzko ebazpena atzeratu egin da eta ez dirudi 2024ko erdialdea baino

lehen irakurri ahal izango dugunik. Botere judizial, politiko eta ekonomikoen arteko benetako banaketan sinesten ez duten mihi gaiztoek diote denbora eman nahi zaiela Batzordeari eta Kontseiluari, bai eta interesa duten herrialdeei ere, okupazioaren aldeko laguntzarekin -formalki hala iruditu gabe -eusteko modua bilatzeko. Nolanahi ere, badirudi epaiak berretsi egingo duela saharar herriak bere baliabideen gainean duen subiranotasuna, eta enpresek eta estatuek beren legezko ordezkari (hau da POLISARIOari) baimena eskatzeko duten betebeharra, horiek ustiatzeko eta garatzeko. Saharar herriaren autodeterminazioaren aldeko borrokarako errefortzu garrantzitsua izango da, eta gobernuari eta enpresei jarrera-aldaketa eskatzeko elkartasun mugimenduarentzat.

NBE, sahararrek manifestazioetan abesten duten bezala, "para qué"? Borroka armatuak berriz hasi eta hiru urtera, ez da gai izan horrek dakarren erabateko aldaketa onartzeko. Idazkari nagusiaren azken txostenean eta Segurtasun Kontseiluaren 2023ko urriaren 30eko 2703(2023) ebazpenean su-etena hautsia dela espresuki aitortu izanak eta Staffan de Mistura Idazkari Nagusiko ordezkari pertsonalak lurralde okupatuetara egindako bisitak aldaketarako nolabaiteko borondatea adierazten dute. Baina Kontseiluaren ebazpenak jarraitzen du eskatzen "*Mendebaldeko Sahararen auziarentzat irtenbide politikoa, errealista, iraunkorra bideragarria, alde guztientzat onargarria izango dena eta adostasunean oinarritua*", autodeterminaziorako eskubidea eta nazioarteko zuzenbide humanitarioa betetzeko beharra aipatu gabe, eta Bake Planaren porrota ekarri zuen Marokoren nahietara amore emateko politika bera sustatzen.

Azken batean, F. Polisariok zuzenbidearen, erresistentzia armatuaren eta nazioarteko elkartasunaren aldeko apustua egiten jarraitzen du, Marokok bere aliatu nagusien laguntzarekin (Espainia, EB, AEB eta, orain, Israel) mantendu nahi duen okupazioari, saharar herria deuseztatzeko ahaleginari, espoliazioari eta immunitateari erantzuteko.

Elkartean estrategia horrekiko dugun konpromisoa berritzen dugu, lankidetzaz eta laguntza humanitarioko proiektuen, gizartearen mobilizazioaren eta instituzioekiko presioaren bidez gure ekarpena egiten saiatuz, bakoitzari dagokigun erantzukizun-zatia gure gain har dezagun egungo gatazkari amaiera emateko eta saharar herriak independentzia osoz dagozkion eskubide guztiez gozatu ahal izan dezan. Memoria honek saiakera horren lekuko laburra izan nahi du.



1. SAHARAKO EMAKUMEEN BATASUN NAZIONALA (UNMS) SENDOTZEA

AZALPENA

Euskal Sarearen eta Saharako Emakumeen Batasunaren arteko lankidetzaren esparruan, 2022an jarraipena eman zaio UNMSeK Saharako emakumeen eta emakumeentzako erreferentziazko erakunde gisa dituen gaitasunak indartzeko prestakuntza-prozesuari.

Ekainean egin zen UNMSren IX. Kongresuan, idazkari nagusi berri bat hautatu zen eta etapa berri bat ireki zen Emakumeen Batasunaren ibilbidean.

Horrela, eta COVIDaren osteko jarduera eta bidaiak berraktibatu ondoren, hainbat prestakuntza-jarduera egin ziren: lidergoaz, taldeen kudeaketaz, jarraipenaz eta ebaluazioaz, proiektuen kudeaketaz, komunikazioaz eta gizarte-ikerketaz; guztiak genero-ikuspegitik eta partaidetza-metodologiaren arabera landuak.

Era berean, Afrikako eta nazioarteko foro eta sareetan parte hartzea erraztu da, emakumeek bakearen eraikuntzan duten zeregina azpimarratuz. Nazioarteko joan-etorrien murrizketak herrialde batzuetan mantentzen ziren arren eta aurreikusitako bidaia batzuk aldatu behar izan ziren arren, idazkari nagusi berriak bisita egin zuen Euskadira, eta Euskal Sarearekin, erakunde publikoekin eta Saharako diasporako emakumeekin bildu zen hiru lurraldeetan. Bidaia Europako hainbat herrialdetan egindako biraren barruan kokatu behar da.

Bestalde, hassaniako ikus-entzunezko komunikazioari buruzko bideotutorial batzuk egin ziren, YouTubean daudenak eta, funtsean, UNMSeko informazioaz arduratzen den taldeari zuzenduak, baina sarbide irekia dute eta horrek baliagarri egiten ditu beste emakume saharar batzuentzat, hala nola okupatutako Saharan bizi direnentzat.



Era berean, 2022an ikerketa sozialeko ikastaroa amaitu zuten Smara-n, eta horren barruan generoari eta enpleguari buruzko ikerketa egin zen. Ikerketaren emaitzak jendaurrean aurkeztu zituzten Smara-ko wilayako gazteek.

Horrez gain, UNMSek wilaya guztietan dauden emakumeen etxeetako ohiko lan-programekin jarraitu du: hizkuntza- eta informatika-ikastaroak, hainbat gairi buruzko hitzaldiak eta tailerrak, hainbat zerbitzu (aholkularitza juridikoa, liburutegia, sauna, haurtzaindegia, fotokopiategia, janari-salmenta, etab.), eta informazio- eta zabalkunde-ekintzak sare sozialetan, irratian eta telebistan presentzia ziurtatzeko. 2022an, hitzaldietako batzuk emakumeen etxeetatik atera eta dairetara eramanez, parte hartzea errazteko eta, horrela, publiko potentziala zabaltzeko.

UNMSri laguntza ekonomikoa eman zaio langile askoren pizgarrietarako eta prestakuntza-jardueren eta funtzionamendu orokorreko jardueren gastuak ordaintzeko, hala nola wifi konexioa.

Era berean, 2022ko lanaren zati bat UNMSen IX. Kongresua babestera bideratu da. Kongresuan, kargua utzi zuen zuzendaritzak bere agintaldian egindakoaren berri eman zuen, hurrengo aldirako zuzentarau berria aukeratu zen eta ekintza-plana onartu zen. Biltzarrean agerian geratu ziren, gainera, nazioarteko babesa eta mundu osoko emakume-sareekiko loturak. Era berean, parte-hartze handia izan zen, aurreko hilabeteetan hainbat bilera egin baitziren auzo, daira eta wilaya mailan, botoa emateko eskubidea zuten ordezkariak aukeratzeko.

FINANTZIAZIOA

Basauriko udaletxea 2021	
Dirulaguntzen zenbatekoa:	5.000 €
2022an betetakoa:	9.416,90 €
Berrizgo udaletxea 2022	
Dirulaguntzen zenbatekoa:	2.705,10 €
2022an betetakoa:	2.705,10 €

Vitoria-Gasteizko udaletxea 2022	
Dirulaguntzen zenbatekoa:	24.676,90 €
2022an betetakoa:	4.784,85 €
Lankidetzaren Euskal Agentzia 2020	
Dirulaguntzen zenbatekoa:	85.492,32 €
2022an betetakoa:	63.223,15 €

LORTUTAKO EMAITZAK

UNMSk gidatutako emakume sahararren ahalduntze-prozesua babesten jarraitzen dugu, Euskal Sarearen, SEADen Lagunen Elkartearen, GLEAren, Gasteizko Udalaren, Basauriko Udalaren eta Berrizko Udalaren laguntzarekin.

EMAITZARIK BEHINENAK

- Lanean jarraitu da UNMSren gaitasunak indartzeko.
- UNMSek nazioarteko posizioa indartu du.
- UNMSek hitzaldi/tailerretarako prestakuntza-programa eman du wilayetan. agenda feministaren hainbat gai lantzeko.
- UNMSek SEADeko beste erakunde eta entitate batzuekin lan egin du.

2. SEADEN GAZTERIA PLANA – AISIALDIKO ETA DENBORA LIBREKO ILDO ESTRATEGIKOA

AZALPENA

Gazteei laguntzeko ildoak bi jarduera-ildo ditu: alde batetik, Gazteria eta Kirol Ministerioko Gazteria Zuzendaritzari laguntza ematen zaio, 2019-2022 Gazteria Planaren gauzatzea sustatu eta koordinatzen baitu. Bestalde, Planaren baitako ekintza batzuk jarri dira abian. Aisialdiaren eta denbora librearen ardatz estrategikoari dagokionez, ekintzak Saharako Scout eta Haurren Erakundearekin koordinatzen dira.

Gazteria Zuzendaritzari laguntzeko, barne-azterketa egin ondoren, lanpostuak berregituratzea erabaki da. Lantaldea 4 pertsonara murriztuko da: Zuzendaria, Idazkaria, Genero arduraduna eta Gazteria Planaren arduraduna.



Taldearen gaitasunak indartzeko, prestakuntza-tailerrak egiten dira. Hiru prestakuntza arlo izan dira: lehendabizikoa, taldeei, komunikazioari, gatazkei eta lidergoei buruzkoa; bigarrena, Lankidetzaproiektuei buruzkoa eta hirugarrena, administrazioari eta kudeaketari buruzkoa.

Bestalde, Zuzendaritzako genero-arduradunak hilabete eta erdiko prestakuntza-bidaia egin du Euskadira. Bisita horretan bilerak egiten ditu eta genero-desberdintasunei eta -indarkeriari buruzko tailerretan parte hartu du. Horri esker, ikuspegi zabalagoa izan du eta kanpamentuetan genero-berdintasuna lantzeko ekintzak proposatu ditu.

Gazteria Plana gauzatzen laguntzeko atalean, zuzendaritzak adimen emozionalari buruzko tailerrak antolatu ditu, psikologo sahararrek emanak eta emakume gazteei zuzenduak. Guztira 91 emakumek hartu dute parte. Autoezagutza, autokontrola, automotibazioa eta gatazken konponketa dira landutako edukiak.

Azaroan, Gazte Politikei buruzko Nazioarteko Konferentzia bat egin zen. Konferentzia horretan, alde guztietako gazte sahararrak (lurralde okupatuak, kanpamentuak eta diaspora) bildu ziren elkartasun-mugimenduarekin batera, Mendebaldeko Sahararen independentziaren aldeko borroka sustatzeko erronkak aztertu eta eztabaidatzeko eta etorkizuneko esku-hartzeak planifikatzeko. Hainbat eztabaida-panel sortu dira, eta honako gai hauek jorratu dira:

- Gazteen zeregina Mendebaldeko Sahara askatzeko borrokan
- 2019-2022 Gazteria Plana: gaur egun arte egindako ibilbidea eta lorpenak. Panel hori SEADeko Gazteria Zuzendaritzak eta Begirune Fundazioko profesionalak aurkeztu dute, eta prozesu osoa lagundu dute gure elkartearen gazte-proiektuen parte gisa.
- Marokoko hedabideen propaganda eta Saharako gazteen eta elkartasun-mugimenduaren kontraerasorako proposamenak

- Belaunaldien arteko komunikazioaren ebaluazioa eta aukerak saharar mugimenduaren eta nazioarteko elkartasunaren barruan
- Saharako baliabide naturalen espoliazioa eta gazteak: erronkak eta aukerak
- Nazioarteko elkartasuna eta Mendebaldeko Sahara askatzeko erronkak. Zein da gazteen zeregina?

Aisialdiko eta denbora libreko ildo estrategikoari dagokionez, Scout e Infancia Saharai erakundeari laguntza eman zaio ohiko funtzionamendurako eta ekintzak antolatzeko.

Elkarteak lagundutako ekintzen helburu nagusia nerabeak dira. Ikasturtean zehar, 15 eta 17 urte bitarteko neska-mutilentzako jarduerak egin dira, wilaya guztietan eta barnetegian, maiatzaren 20an, astean bi egunetan, hezkuntza-talde egonkorrekin. Ezarritako helburuen artean:

- Nerabeen arteko lankidetzak eta tratua onartzea
- Ohitura txarren prebentzioa, hala nola drogen kontsumoa, ausarkeriaz gidatzea...
- Sare sozialen erabilera positiboa sustatzea
- Dibertsitate funtzionala duten pertsonen bazterketaren prebentzioa
- Nerabeen trebetasunak sustatzea

Scout erakundeko kideen artean barne-prestakuntzak egin ditu administrazioan, kudeaketan, komunikazioan eta sare sozialetan.

Genero-desberdintasunei heldu die erakundeko gizonekin egindako gogoeta-tailerren bidez.

Azkenik, scout erakundeari laguntza eman zaio bere funtzionamenduan eta ekintzen antolaketan.

FINANTZIAZIOA

Vitoria-Gasteizko udaletxea 2021	
Dirulaguntzen zenbatekoa:	49.439,33 €
2022an betetakoa:	13.827,51 €
Vitoria-Gasteizko udaletxea 2022	
Dirulaguntzen zenbatekoa:	34.933,30 €
2022an betetakoa:	7.158,37 €

Arabako Foru Aldundia 2022	
Dirulaguntzen zenbatekoa:	20.882,03 €
2022an betetakoa:	20.882,03 €

LORTUTAKO EMAITZAK

- Gazteria Zuzendaritza indartu egin da, bertako kideei prestakuntza eman baitie administrazioan, taldeen kudeaketan eta generoarekin lotutako gaietan, eta horrek beren lanak hobeto garatzea ahalbidetuko die.
- Gazteria Zuzendaritzako genero-arduradunak, Euskadin egindako prestakuntza-egonaldiaren ondoren, ezagutza-oinarri bat du genero-erolek gizarte eraikuntzan duten eragina berdintasunaren ikuspegitik aztertzeko.
- Gazteria Plana erreferentea da SEADen gobernurako, eta Gazteriaren Konferentziatik sortutako proposamenak kontuan hartu dira Fronte Polisarioaren Kongresuan.
- Wilaia guztietako emakume gazteek adimen emozionalari buruzko tailerretan parte hartu dute, eta sor dakizkiekeen arazoei aurre egiteko tresnak eskuratu dituzte.
- Hezkuntza-aisialdiko lana mantendu da nerabe-taldeekin wilayetean eta Maiatzak 20 eskolan.
- Scout erakundeko gizonekin berdintasunari buruzko elkarrizketa hasi da.

3. SAHARAKO ERREFUXIATUEN KANPAMENTUETAKO GARRAIO-AZPIEGITURARI LAGUNTZEA

SMARAKO GASOLINDEGIA BIRGAITZEA ETA HANDITZEA SUNTSIKORRAK ETA ORDEZKOAK

AZALPENA

Garraio publikoa indartzea helburu, Smarako gasolindegiaren edukiera berritu eta handitzeaz gain, Gazuani eta Ausserdeko tailerrei beharrezko hondagarriak eta ordezeko piezak eraman dizkiegu, langileek funtzio publikoari lotutako ibilgailu astun eta arinen mantentze-lanak eta konponketak ziurta ditzaten.

FINANTZIAZIOA

Euskal Fonda / Bizkaiko Foru Aldundia 2020	
Dirulaguntzen zenbatekoa:	186.500,00 €
2022an betetakoa:	31.080,16 €

LORTUTAKO EMAITZAK

Karabana 2022ko ekainean iritsi zenez, Gazuani eta Mejidiko lantegiek ibilgailu astunen eta arinen mantentze-lanak egiteko beharrezkoak diren suntsikorrak dituzte, bai eta 2022ko maiatzera arte jakinarazitako matxuren konponketa guztiak egiteko ere.

Era berean, lantegi horiek beharrezko ekipoak dituzte ibilgailu arin eta astunetan mantentze-eragiketak eta konponketa ohikoenak egiteko.

2021. urtearen amaieran, Saharako 4 soldaduz osatutako talde boluntario batek Smarako gasolindegi berria altxatu eta martxan jarri zuen. 2022ko karabanan, Garraio eta Energia Ministerioaren gasolindegien deposituak eta erregai-kamioien zisternak garbitzeko ekipo bat iritsi zen, baita iragazkiak ordezteko bigarren sorta bat ere.



4. GAZUANI, AUSERD ETA MEJIDI LANTEGIEI LAGUNTZEA ETA GARRAIO ETA ENERGIA MINISTERIOARI EKIPO ELEKTROGENOAK ETA SISTEMA FOTOVOLTAIKOAK KONPONTZEKO ETA MANTENTZEKO UNITATE MUGIKOR BAT EMATEA

AZALPENA

Kanpamentuetako eta lurralde liberatuetako sahararrei laguntzeko, Garraio eta Energia Ministerioari unitate mugikor bat eman zaio, erakunde publikoen eguzki-sistemak eta sorgailu osagarriak mantentzeko eta konpontzeko. Gazuani, Auserd eta Mejidi lantegiei laguntzen jarraitzen dugu, garraio publikoko ibilgailuen mantentze-lanak eta konponketak eta horien mekanikarien prestakuntza bermatu ahal izateko beharrezkoak diren suntsikor eta ordezkoekin.



FINANTZIAZIOA

Euskal Fundoa / Bizkaiko Foru aldundia 2021	
Dirulaguntzen zenbatekoa:	186.501,74 €
2022an betetakoa:	163.909.11 €

LORTUTAKO EMAITZAK

Lantegi-kamioia kanpamentuetara iritsi ondoren, Garraio Ministerioak matrikulazioa eta "karta grisa" izapidetu ditu. Bigarren epe horren amaieran, Garraio Ministerioak txofer bat eta argiketari bat esleitu dizkio unitate mugikorrari. Elkarteko elektrikari boluntario batek gidariari eta elektrikariari prestakuntza eman die lantegi-kamioiak dituen tresneria eta baliabideak erabiltzeko, ekipo elektrogenoak eta sistema fotovoltaikoak mantentzeko eta konponketa ohikoenak egin ahal izateko.

2022an, Gazuaniko tailerrak 245 mantentze-lan eta konponketa egin zituen, eta Mejidiko tailerrak 148 lan. Beharrezko ordezkoezko piezen zerrenda eguneratu egingo da, ibilgailuek izandako matxuren arabera.

2022ko azaroaren 3an, Gazuaniko zuzendaritzak hautatutako mekanikari sahararrak, Deidih Ahmed Emboiricek, prestakuntza praktikoa hasi zuen Gasteizko injekzio elektronikoko tailer batean, 2023ko urtarrilean, matxura elektronikoak diagnostikatzeko ekipoak eta injektoreak eta injekzio elektronikoko ponpak kalibratzeko ekipoak erabiltzeko.

5. GAZUANI, AUSERD ETA MEJIDI LANTEGIAK BABESTEIA, ETA GARRAIO ETA ENERGIA MINISTERIOARI ERREGAI KAMIOI BAT EMATEA

AZALPENA

Garraio publikoa indartzeko asmoz, SEADeko Garraio eta Energia Ministerioaren Erregai Zuzendaritzari erregairako zisterna-kamioi bat emateaz gain, Gazuani, Mejidi eta Ausserdeko tailerretan beharrezkoak diren suntsikorrez eta ordezeko piezez hornitzea proposatzen dugu, langileek ibilgailu publikoen mantentze-lanak eta konponketak ziurta ditzaten.

FINANTZIAZIOA

Euskal Fondon / Bizkaiko Foru aldundia 2022	
Dirulaguntzen zenbatekoa:	186.500,00 €
2022an betetakoa:	32.556,17 €

LORTUTAKO EMAITZAK

Jasotako lehenengo funts-sortarekin IVECO Eurocargo 18T kamioi bat erosteko seinalea ordaindu genuen. Era berean, GESPASari aurrerapen bat ordainduko diogu, erregai-zisterna eraikitzeaz eta beharrezko osagarriak eskuratzeaz arduratuko baita.

Abenduaren amaieran injektoreak egiaztatzeko modulu bat erosi genuen, Gazuaniko lantegian instalatutako injektoreak eta injekzio-ponpak egiaztatzeko bankuak osatzeko.

Deidih Ahmed Emboiric mekanikari sahararrak Gasteizko injekzio elektronikoko tailer batean matxura elektronikoko diagnostikatzeko ekipoak eta injektoreak eta injekzio elektronikoko ponpak kalibratzeko ekipoak erabiltzen ikasten jarraitzen du.

6. MHEIRIZEN URA BANATZEKO SISTEMA INDARTZEA

AZALPENA

Ura izateko giza eskubidearen ikuspegitik, proiektuak Mheirizen (Lurralde Liberatuak) itzultitako sahararrek edateko ura eskura dezaten bermatzea du helburu, emakumeei ura etxean baldintza egokietan gordetzeko gordailuak emanez.

Bestalde, proiektuak tokiko gaitasunen garapena sustatzen du, eta hausnarketa-prozesuarekin jarraitzen du, Mheirizen bizi diren eragileek modu parte-hartzailean erabaki dezaten uraren banaketa nola antolatu.

Azkenik, bertsolari jaialdi bat antolatu dugu "Ura–Sahara-Emakumeak" gaiaren inguruan euskal gazteen artean ur eskubide unibertsalari buruzko hausnarketa sustatzeko eta gaiaren garrantziaz sentsibilizatzeko.

FINANTZIAZIOA

Garapenerako Euskal Agentzia 2020	
Dirulaguntzen zenbatekoa:	173.099,34 €
2022an betetakoa:	21.972,64 €

LORTUTAKO EMAITZAK

Proiektuaren garapena pandemiak eta gerrak markatu dute. Edateko urez hornitzen zuen zisterna-kamioia suntsitu zenean, Mheirizko familia asko kanpamentuetara itzuli ziren, eta beste batzuk Mauritania finkatu ziren.

Mheirizera joaterik ez izateko, batzordea indartzeko programa egokitu behar izan genuen. Azkenik, otsailaren 25etik 2022ko martxoaren 3ra bitartean astebeteko bidaia egiteko aukera zabaldu zen, bertan alkatetzaren idazkariarekin eta auzoetako buruekin lan egiteko. INCyDE enpresako Esther Canariasek dinamizatutako tailerrek banaketa antolatu zuten zisterna-kamioia suntsitu aurreko aldian, eta 2021aren amaieran beren etxeak uztera behartutako familiek bizi dituzten baldintzak aztertu zituzten.

7. ELIKADURA-SEGURTASUNA

AZALPENA

Esku-hartzearen xedea da Tindufen (Aljeria) errefuxiatutako sahararren elikadura-segurtasuneko estrategia babestea. Elikadura-krisia behin eta berriz errepikatzen da kanpamentuetan, eta aldi oro, orain gertatzen den bezala, areagotu egiten da hainbat arrazoirengatik.

Proiektua hiru emaitzaren inguruan egituratzen da. Lehenengoak eta nagusiak –diruari dagokionez– egoera ahulenean dauden 133.672 pertsonen (% 61 emakumeak) jasotzen duten elikagaien oinarrizko saskiari laguntzea du helburu. Bigarren emaitza amekin egindako azterlan bat zabaltzea izango da, moringaren kontsumoak anemia murriztean dituen ondorioak ezagutzeko. Azkenik, hirugarren emaitza moringaren kontsumoaren onurei buruzko sensibilizazio-programa bat izango da.

Proiektua tokiko bi bazkiderekin gauzatzen da: MLRS eta Garapen Ekonomikoko Ministerioarekin, eta emakume sahararrek parte-hartze aktiboa dute. Proiektuaren osagarri, bi sensibilizazio-jarduera egingo dira Euskadin, nutrizio-graduako ikasleei eta, oro har, herritarrei zuzenduak.

FINANTZIAZIOA

Vitoria-Gasteizko udaletxea 2021	
Dirulaguntzen zenbatekoa:	204.208,60 €
2022an betetakoa:	20.031,36 €
Vitoria-Gasteizko udaletxea 2022	
Dirulaguntzen zenbatekoa:	202.422,08 €
2022an betetakoa:	1.914,74 €

Lankidetzaren Euskal Agentzia 2022	
Dirulaguntzen zenbatekoa:	199.999,95 €
2022an betetakoa:	166.704,89 €
Eusko Jaurlaritza -Kanpo Harremanak	
Dirulaguntzen zenbatekoa:	220.000,00 €
2022an betetakoa:	220.000,00 €

LORTUTAKO EMAITZAK

- Laguntza errefuxiatuen artean kudeatzen eta banatzen duen Saharako Ilargi Gorriaren biltegietan jasotzeko elikagaiak eta behar-beharrezko produktuak erostea.
- Oinarrizko saskiko produktuak zein produktu freskoak (arrautzak) erosten dira dietan proteinen ekarpena hobetzeko.
- 2022an ekoizpena gutxi gorabehera 250 kg moringa prozesatutan mantendu da.
- Lehen azterlana osatu genuen, guzira bularra ematen ari ziren 143 emakumek parte hartu zuten, eta ikerketaren bigarren zatiari ekin genion, 88 emakumek hartu zuten parte.

8. SAHARAR ERREFUXIATUEN KANPAMENTUETAKO INGURUMEN OSASUNeko ZERBITZUAK

AZALPENA

Ekintza humanitario honen bidez, Elkartek Ur eta Ingurumen Ministerioari laguntza ematen dio Ingurumen Osasuneko Unitate bat abian jarri. Unitate hori daera mailako ur- eta ingurumen-batzordeetako laguntza jasotzen du.

FINANTZIAZIOA

Eusko Jaurlaritzaren 2021	
Dirulaguntzen zenbatekoa:	194.650,15 €
2022an betetakoa:	126.747,21 €

LORTUTAKO EMAITZAK

Maiatzaren amaieran karabanarekin askotariko tresnak bidali genituen; hala nola: iraulketa-kamioia hildako animaliak biltzeko zerbitzua indartzeko, 4x4 ibilgailua ingurumen-fumigazioak egiteko, banakako fumigazio-ekipoen nebulizatzaileak eta dagozkion NBEk (mantal-eskularruak, botak, etab.). Tresneria hori ur- eta ingurumen-batzordeetako ingurumen-osasuneko 29 arduradunek erabiliko dituzte.

Martxan jarri zen Ur eta Ingurumen Ministerioaren Ingurumen Osasuneko unitatea. Bulego nagusian arduradun-idazkaria, 2 txofer eta 2 laguntzaile daude eta 29 daeretako bakoitzena arduradun bat. Hilean behin, talde zentrala wilayako daeren arduradunekin biltzen da.

Proiektuaren amaieran, Ingurumen Osasuneko Unitate nagusiko arduradunak batzordeetako arduradunekin batera ingurumen-osasuneko hezkuntza-kanpaina bat antolatu zuen

2022ko abenduaren hasieran, elkarteko boluntario bat kanpamentuetara joan zen, eta desinfekzio- eta fumigazio-jardueretan erabilitako produktuen manipulazioan arriskuak prebenitzeko ikastaro bat eman zuen.



9. BOJADORREN ETXEKO HONDAKINAK GAIKA BATU ETA BILTZEKO SISTEMA EZARTZEA

AZALPENA


Bojadorren sortutako etxe hondakinen bolumena nabarmen handitu da azken hamar urteetan, eta eskualdeko zuzendaritzak baliabide tekniko, material eta ekonomiko urriak dituen arren, funtzionatzen duen bilketa-sistemak ezin du hondakin kopuru hori prozesatu.

Proiektuaren bidez, Bojadorreko Ur eta Ingurumen Ministerioko eskualdeko zuzendaritzari eta ur eta ingurumen batzordeei laguntza ematen diegu etxe hondakinak biltzeko eta gaika biltzeko sistema bat ezartzeko, birziklapena elementu nagusi gisa duen kudeaketa integraleko sistema baterantz lehen urrats gisa.

Gasteizko gizartea sentibilizatu eta hausnarketa bultzatu nahi genuen saharar gatazkaren arrazoi eta ondorioez, baliabide naturalen espolioaz eta erbesteko bizitzaz. Horretarako horma-irudi bat egin genuen eta bertsolari txapelketa bat antolatu genuen Zaramaga auzoan.

FINANTZIAZIOA

Lankidetzaren Euskal Agentzia 2021	
Dirulaguntzen zenbatekoa:	553.664,16 €
2022an betetakoa:	171.951,29 €



LORTUTAKO EMAITZAK

- Espolioazioaren ondorioei buruzko sentibilizazio-kanpaina. Tokiko erakundeen lankidetzari aktiboari eta sare sozialetako jardueraren dibulgazioari esker, parte-hartzaile ugari izan genituen. Lau solairu hartzen dituen balio artistiko handiko horma-irudia egin genuen "Kolhormak" -ren zuzendaritzapean eta modu grafikoan jasotzen du Marokoko Estatuak okupatzen duen Sahararen espolioazioa. Bestalde Mondragon Unibertsitateko praktiketako bi ikasleren laguntza izan genuen, eta horma-irudiaren lanen prozesuaren bideoa bat egin zuten inaugurazio egunean proiektatu genuena. Murala egiten modu aktiboan parte hartu zuten artean, zozketa bat egin zen kanpamentuetara bidaia bat egiteko, horma-irudiaren zati bat han berregiteko, bi lurraldeak borroka berean lotzeko modu gisa. Lana Auserdeko wilayan egin zen eta UJSARIO eta SAP erakundeekin laguntzarekin.
- 500 unitate (SULO) erosi ditugu, eta horietatik 150 plastikozko ontziak biltzeko izango dira.
- Otsailean IVECO Eurocarga ML80 (Bomloy) hiru ibilgailuan eskaera egin genuen, eta martxoan, berriz, bilketa-taldeenak (Ros Roca – Rossi Oleodinamica) eta 2023ko udan entregatuko dira.
- Saharako hainbat erakundetako ordezkari osatutako talde eragileak birziklatze-kanpaina prestatzen ari da Errotik aholkularitza-enpresak lagunduta.

10. SAHARARREK EUSKADIN DUTEN ORDEZKARITZA-BULEGOA MANTENTZEA

AZALPENA

Sahararrek Euskadin duten ordezkartzari laguntzea, ordezkartza eta eragin politikoko lanak burutu ahal izateko bitartekoak eskainiz, bai eta euskal instituzioek eta erakundeek egindako eta lagundutako lankidetzak koordinatzeko ere. Ordezkaritzak funtsezko zeregina betetzen du Euskal Herrian finkatutako kolektibo sahararrari laguntzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren saharar herritarrei ziurtagiri ofizialak emateko bulego kontsularra mantentzen da, ondasunei, jatorriari, bizilekuari eta egoera zibilar buruzkoak.

2022an, hainbat jardueraren etenaldiaren ondoren, jarduera horietako batzuk berrabiarazi ahal izan dira, hala nola abenduan antolatu zen familien charter hegaldia eta Oporrak Bakean/Vacaciones en Paz programa.

2022an, Euskal Fondoarekin batera, Saharako eta Euskal Herriko emakumeen arteko topaketa antolatu zen. Euskal politikan eta gizartean nabarmentzen diren sei emakumez osatutako talde bat Saharako errefuxiatuen kanpamentuetara joan zen topaketa bat egitera Saharako egoera politikoan leku nabarmena duten emakume-talde batekin. Ahalduz politikoa izan zen ardatz nagusia hiru eguneko topaketan.

FINANTZIAZIOA

Arabako Foru Aldundia 2022	
Dirulaguntzen zenbatekoa:	39.200,00 €
2022an betetakoa:	39.200,00 €
Arabako Foru Aldundia 2022	
Dirulaguntzen zenbatekoa:	20.000,00 €
2022an betetakoa:	20.000,00 €

Eusko Jaurlaritza 2022	
Dirulaguntzen zenbatekoa:	85.000,00 €
2022an betetakoa:	85.000,00 €

LORTUTAKO EMAITZAK

- Ordezkaritzara atxikitako taldeak behar diren baliabideak izan ditu, dagozkion zereginak modu egokian betetzeko.
- Ordezkaritza hainbat espazio politiko eta sozialetan parte hartu du. Jasotako gonbidapenei erantzun die eta zenbait esparrutan ekimena izan du.
- Ziurtagiri ofizialak eman zaizkie Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren sahararrei.
- Elkartasun-erakundeen eta Saharako agintarien arteko koordinazioa egin da.
- Saharar eta euskal emakumeen arteko topaketa egin da saharar errefuxiatuen kanpamentuetan.

11. SEADEN ZERBITZU PUBLIKOEN PIZGARRI-SISTEMARI LAGUNTZEA

AZALPENA

Saharako kanpamentuetan ez dago ohiko soldata-sistematik, baina gero eta ohikoagoa da funtzionario publikoei pizgarrien bidez ordaintzea. Modalitate honek, batetik, egiten den lana aintzatesteko balio du, eta, bestetik, oinarrizko saskiko produktuekin estaltzen ez diren ondasun eta zerbitzu jakin batzuk eskuratzeko aukera ematen dien diru-sarrera iturri bat emateko familiei.

Gasteizko Udalarekin sinatutako hitzarmenak funtzio publikoari laguntzea aurreikusten du. Horrela, proiektua Lankidetzako Ministerioko langileentzako pizgarriak ematera bideratzen da, kanpamentuetan egiten diren laguntza eta lankidetzako proiektuak koordinatzeaz arduratzen den erakundea baita, eta SEADen eta Sahararekin lan egiten duten GKEen eta nazioarteko erakundeen arteko lotura gisa jarduten baitu.

FINANTZIAZIOA

Vitoria-Gasteizko udaletxea 2022	
Dirulaguntzen zenbatekoa:	15.000,00 €
2022an betetakoa:	15.000,00 €

LORTUTAKO EMAITZAK

- Ministerioko hainbat profil eta funtziotako 43 langileri pizgarriak eman zaizkie urtariletik abendura bitartean.

12. ESPOLIAZIOAREN AURKAKO JARDUNALDIAK -Gizartea eraldatzeko hezkuntza-estrategiak Sahararen alde-

AZALPENA

"SAHARA – Actuación contra el expolio" kongresua Mendebaldeko Saharak pairatzen duen Marokoren okupazioa ikuspegi politiko-ekonomiko batetik aztertzeke eta hausnartzeko sortu zen. Gai horri buruzko lehen biltzarra izan zen, eta Espainiako estatuko, kanpalekuetako eta lurralde okupatuetoako erakundeak bildu ziren, Saharako baliabide naturalen espoliazioan adituak. Jardunaldiak 2022ko urriaren 21ean eta 22an egin ziren eta bi egun horietan, jakintzak partekatu eta hainbat gai aztertu ziren: beste herrialde batzuek saharar ondasunez jabetzearen jatorria, saharar emakumeen zeregina, Marokok saharar herriaren nekazaritza- eta arrantza-produktuak lapurtzeko egiten duen prozesua eta Fronte Polisarioa Europako auzitegietan egiten ari den legeborroka. Hainbat erakundek salatzeko abian jarri diren ekimen batzuk ezagutzeko gune bat ere egon da.

Bigarren eguneko arratsaldea WSNS kanpainan parte hartzen duten erakundeetara mugatutako lan-saio bat izan zen. Saio horretan 17 pertsonak hartu zuten parte (9 emakume eta 8 gizon), eta helburua zen 2023an zehar egin beharreko ekintza bateratuak identifikatzea eta adostea. Horretarako, Saharako gizarte zibileko,



Fronte Polisarioiko eta Sahararekiko elkartasun mugimenduko eragile inplikatuaren arteko artikulazio- eta koordinazio-mekanismoak ezarri ziren. Ahalik eta etekinik handiena atera ahal izateko, Esther Canarias (INCyDE) enpresaren dinamizazioa baliatu zen. Dinamizazio horrek, aurretik, SEADen Lagunen Elkartek bultzatutako talde-laneko hainbat prozesu lagundu ditu.

Jardunaldien bezperan, Sergio Arrospideren eskutik, gai honen inguruko bakarriketa egin zen Aldabe Gizarte-etxean. Aktoreak saharar baliabide naturalen lapurretarekin lotutako kontzeptuak umore-ukituekin aurkeztu zituen, eta gatazka ulergarriagoa egin zuen gutxi ezagutzen zutenentzat.

Kongresuaren aurretik informazio-stand bat jarri zen Hornidura Plazako merkatuan, ekitaldien berri emateko, baina baita herritarrak sensibilizatzeko ere Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen espoliatioari buruz.

FINANTZIAZIOA

Vitoria-Gasteizko udaletxea 2022	
Dirulaguntzen zenbatekoa:	20.567,72 €
2022an betetakoa:	20.567,72 €

13. GIZA ESKUBIDEAK BABESTEKO LAGUNTZA

AZALPENA

Proiektuak 2017an hasitako ildoari jarraitzen dio, erakundearen giza eskubideen arloa sendotzeko helburuarekin. Zeharkako ardatz baten inguruan egituratzen da, arloko ekintzak integratu eta koherentzia ematen duen koordinazio baten inguruan.

2022ko proiektuak hiru ildo jorratu ditu:

Lehenengoan, Elkartek giza eskubideen arloan egiten duen lanari jarraipena eman zaio, esku hartzeko ildo espezifiko gisa, baina baita programa, proiektu eta ekintzen ardatz gisa ere. Hemen hiru jarduera planteatu dira: 1) arloaren koordinazioa, proiektu osoarekiko zeharkako gisa; 2) kanpamentuetako eta lurralde okupatuetako emakumeen lidergoa babestea eta ikusaraztea, autodeterminazio-eskubidearen aldeko erresistentzia baketsuaren aitzindari baitira; eta 3) Mendebaldeko Saharako gatazkaren arrazoiak salatzen eta eragiteko kanpainak eta ekintzak egitea.

Bestalde, proiektuak laguntza eman dio Giza Eskubideen Saharako Batzorde Nazionalari (CONASADH), giza eskubideen zaintza, salaketa eta prestakuntza lanetan, pizgarriak emanez, ekipamenduan, prestakuntza- eta dibulgazio-ekintzetan lagunduz eta plastikoa birziklatzeko kanpaina bat diseinatuz, ingurumen garbia izateko eskubidearen ikuspegitik.

Azkenik, Mendebaldeko Sahara Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluaren agendan kokatuta mantentzeko lan egin da, urtean zehar egiten diren ohiko hiru bilkura-aldietan, saioen prestaketan lagunduz eta saharar eragileen parte-hartzea erraztuz.

FINANTZIAZIOA

Arabako Foru Aldundia 2022	
Dirulaguntzen zenbatekoa:	33.663,42 €
2022an betetakoa:	33.663,42 €

LORTUTAKO EMAITZAK

Lotura iraunkorra dago Saharako giza eskubideen aldeko eragileekin, Gobernuarekin eta gizarte zibilarekin, horien lana eta hedapena errazteko.

Pizgarri bat eman zaie urtero CONASADHeke 28 kideri (10 emakume eta 18 gizon); horietatik 23 Buroko kideak dira eta 5 administrazio-lanen arduradunak.

CONASADHri laguntza ekonomikoa eman zaio "Giza eskubideen mekanismo afrikarren aplikazioa" gaiari buruzko mintegia egiteko eta "Eraikuntza instituzional eta juridikoa Saharako estatuan giza eskubideak sendotu eta sustatzeko" liburua argitaratzeko eta inprimatzeko. "

Saharako gatazka ezagutzea eta aktibismo sahararra Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluan egotea sustatu da.

Elghalia Djimi aktibistak hirugarren bilkura-aldian parte hartzea babestu da.

Online panel bat egin da "Que salga todo a la luz: violaciones de derechos humanos de las mujeres en el Sahara ocupado, 1975-2021" (Hegoa, 2022) liburua aurkezteko. Liburu horrek Mendebaldeko Saharako emakumeek egindako ikerketa-lan bat jasotzen du.

DIRU-LAGUNTZA PUBLIKOAK


2022 onartutako diru-laguntzak, arloa

Arloak	Dirulaguntza osoa
Elikadura-segurtasuna	637.658,20 €
Garraioa	186.500,00 €
Saharar ordezkaritza	144.200,00 €
Gazteria	60.532,92 €
Generoa	29.239,40 €
GGEE	37.029,77 €
Lankidetzatza ministerioa	16.129,03 €
GEHE	22.515,83 €
GUZTIRA	1.133.805,05 €


2022an onartutako diru-laguntzak finantzatzaileen arabera

Finantzatzaileak	Dirulaguntza osoa
EJ	504.999,95 €
GASTEIZko Udaletxea	320.000,00 €
EF	186.500,00 €
AFA	99.200,00 €
BFA	20.000,00 €
Bestelako finantzatzaileak	3.106,00 €
GUZTIRA	1.133.805,05 €

2022 onartutako diru-laguntzak, arloa



2022an onartutako diru-laguntzak finantzatzaileen arabera



14. BESTELAKO JARDUERAK

Proiektuak eskatzeko, gauzatzeko eta justifikatzeko lanez gain, Gasteizko SEADen Lagunen Elkarreak beste zeregin eta jarduera batzuk ere egiten ditu. Hainbat arrazoiengatik Elkartera hurbiltzen diren pertsoneri arreta ematea, iristen zaizkigun eskaerei erantzutea, hainbat koordinazio-mota bideratzea... ohiko zereginak dira.

Elkarteren nortasunaren muintetik sortutako beste ekintza mota batzuk ere badaude; hemen 2022an egindako ekintza batzuen laburpen xume bat eskaintzen dizuegu.

SEADen sorreraren 46. urteurrena ospatzeko ekitaldiak, otsailaren 27an goizean Bilbao eta Diputazioa plazan artean nahikoa jendetsua gertatu zen ibilaldii bat izan genuen.

Diputazio plazan haima bat izan genuen eta hainbat ekintza antolatu ziren eta Sahara nabarmendu zen goizen zehar. Prentsa ohar bat bidali genuen komunikabideetara.

Radio Euskadiko "La Galeria" programan parte hartu genuen grabatutako testu batekin.



Urtean zehar 3 buletin sortu ditugu bazkideekin eta hurbileko jendearekin harremanak mantentzeko. Lehendabiziko buletina otsailaren 27rako bidali genuen, bigarrena uda hasieran eta azkena urtea amaieran. Urtero hiru buletin banatu nahi genuke.

Martxoan Pedro Sanchezek Marokoko erregeari bidalitako gutunaren berri izan genuen, bertan Sahararentzako irtenbiderik egokiena autonomia litzatekeela adierazi zuen.



Horren aurka **hamaika mobilizazio** jendetsu antolatu ziren estatuan eta Elkarreak Gasteizkoa bultzatu zuen.

Horrez gain, **Gasteizko udaletxean** PSOEren jarrera salatzen aurkeztutako mozio bat defendatu genuen. Hurrengo hiletan, maiatzean hasita, elkarretaratzeak deitu genituen PSEren egoitzaren aurrean, hilaren hirugarren ostegunean. Guztira bost izan genituen eta partaidetza nahikoa gorabeheratsua gertatu zen.

Apirilaren 1ean, Korrikan parte hartu genuen 291. kilometroan “Araba bizirik” taldearekin batera. Elkarteko hainbat kidek bat egin zuten deialdiarekin eta horietako batek eraman zuen lekukoa.



Maiatzaren 19a eta 22aren artean **UJTSARIOaren Kongresua** izan zen eta bertan elkarteko pertsona bat izan zen Euskaditik joan ziren beste hainbat kideren artean.

Irailaren 24an **Sultana Jaya Giza Eskubideen defendatzaile sahararrari harrera** egin genion Gasteizen. Lehendabizi ekitaldi zabal bat izan genuen Andre Mari Zuriaren Plazan. Ondoren manifestazioa egin zen plazatik Aldabe gizarte-etxera eta han hurbileko ekitaldi bat izan zen. Bertan 200 lagunek baino ezin izan zuten parte hartu.



Azaroaren 14an, hiru aldeko hitzarmenaren sinaduraren urteurrena da. Hori salatzeko hainbat ekintza antolatu ditugu:

Hilaren 13an La Galeria irratsaioan elkarreak grabatu eta bidalitako testu bat eskaini dute.

Bestalde **Emakumeen giza eskubideen urraketak Mendebaldeko Sahara okupatuan (1975-2021)** liburuaren aurkezpena antolatuko dugu, azaroaren 14an, Sorginetxean

Abenduaren 22an elkarretaratzeak egin ditugu **Mercadonak** Simon de Anda Kalean duen supermerkatuaren aurrean, goizez eta arratsaldez, Mendebaldeko Saharako produktuak saltzen dituela salatzeko, askotan, Marokokoak balira bezala.



Lankidetzaren Euskal Agentzia lege berria egiten hasi zen, eta ekarpen bat egin genion legeak esplizituki jaso zezan Sahararekiko lankidetzari. Ekarpen hori taldeartekoaren bidez kudeatu zen.